

Laneko Arriskuen Prebentziorako Legearen laburpena

Lan Osasunaren Bulegoa

AURKIBIDEA

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO LEGEAREN LABURPENA	3
Langileen eskubideak	3
Enpresaburuaren eginbeharrak	4
Langileen betebeharrak	6
Parte hartzeko eta ordezkaritza izateko eskubideak	6
PREBENTZIOKO ORDEZKARIAK	7
Zer dira?	7
Nola aukeratzen dira?	7
Prebentzioko Ordezkarien eskumenak eta ahalmenak	8
SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDEA	10
Zer da?	10
Eskumenak	10
Ahalmenak	10
AMATASUNA BABESTEIA	12
LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREKIN LOTURIKO DEFINIZIOAK	14

*9. dokumentua
2007.eko maiatza*

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO LEGEAREN LABURPENA

OINARRIZKO PRINTZIPIOA:

“Langileek laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko babes eraginkorra izateko eskubidea dute. Eskubide horrek, ondorioz, langileak lan-arriskuetatik babesteko betebeharra dakarkio enpresaburuari”.

Babesteko betebeharrak hori Administrazio publikoari ere badagokio, bertan diharduten langileekiko.

LANGILEEN ESKUBIDEAK

1. **Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan, babes eraginkorra izatea.**
2. **Segurtasuna eta osasuna babesteko neurrien kostua jasan behar ez izatea.**
3. **Norberaren lanpostuko berariazko arriskuei, arriskuotatik babesteko eta aurrea hartzeko neurriei eta larrialdietarako neurriei buruzko zuzeneko eta banan-banako informazioa jasotzea.**
4. Arriskuen prebentzioaren gaineko **prestakuntza** hartzea, prestakuntza-aldia lan-denboratzat hartuz.
5. Enpresan, arriskuen prebentzioarekin loturiko jardueretan parte hartzea. **Enplegu-emaitzari, langileek parte hartzeko organoari eta langileen ordezkaritza-organoei proposamenak egitea.**
6. Jarduerak norberaren bizitzari edo osasunari hur-hurreko arrisku larria dakarkiola uste izanez gero, lanaldia etetea eta lantokia uztea. Langileari ezin izango zaio horren ziozko zehapenik ezarri, asmo txarrez jardun ez badu edo zabarkeria larria egozterik ez badago.
7. Lanari datzekion arriskuen arabera, aldizkako osasun-azterketak egitea eta **langilearen osasun-egoerari buruzko informazio guztietan beraren**

intimitatea, duintasuna eta konfidentzialtasuna errespetatzea. Osasun-azterketen emaitzak ezin izango dira langilea diskriminatzeko edo beraren kaltetan jarduteko erabili.

8. **Langilearen ezaugarri pertsonalengatik, egoera biologiko ezagunagatik edo edozein egoera iragankorregatik bete ezin ditzakeen baldintza psikofisikoak dituen eta, ondorioz, langilea edo beste norbait arriskuan jar dezakeen lanpostuan ez kokatzea.**
9. **Aldi baterako kontratua duten langileek eta ABLEen bitartez kontratatukoek gainerakoen babes-maila bera izatea.**
10. **Prebentzioaz arduratzeko izendatutako langileek edo prebentziozerbitzuko kide direnek ez dute horren ondoriozko kalterik ez noiztzea eta LEaren 68. artikulua ematen dizkien bermeez gozatzea.**

ENPRESABURUAREN EGINBEHARRAK

1. Langileak lan-arriskuetatik babestea.

Babesteko betebeharra betetzeko, enpresaburuak lanarekin zerikusia duten alderdi guztietan bermatu beharko ditu beretzat diharduten langileen segurtasuna eta osasuna. Ondorio horri begira, enpresaburuak, bere erantzukizunen esparruan, enpresan prebentzio-jarduera sartuz eta langileen segurtasuna eta osasuna babesteko behar diren neurri guztiak hartuz gauzatuko du lan-arriskuen prebentzioa.

Enpresaburuak prebentzioaren artapen iraunkorra egingo du, saihestu ezin izan diren arriskuak eta enpresan dauden babes-mailak identifikatzeko, ebaluatzeko eta kontrolatzeko ekintzak etengabe hobetzearen, eta beharrezko erabaki guztiak hartuko ditu aurreko paragrafoan aipatutako prebentzio-neurriak lanaren burutzapenean eragina izan dezaketena aldatetara egokitzeke.

2. **Segurtasuna eta osasuna bermatzeko neurrien kostua bere gain hartzea.**
3. **Zeregin bat esleitu zaion langilearen lanbide-gaitasuna aintzat hartzea.**
4. **Langileek izan ditzaketan deskuiduak edo zuhurtziagabetasun ez-ausartegiak aurreikustea.**

5. Babes-neurri kolektiboen edo antolakuntzazko neurrien bidez behar bezala mugatu edo saihestu ezin diren arriskuak dauden lanpostuetan, **banako babes-ekipamendu egokiak ematea eta ekipamenduak erabili egiten direla jagotea.**
6. **Langile guztiek arriskuei eta babes- zein prebentzio-neurri eta ekintzei buruzko informazioa jaso ditzaten behar diren neurri guztiak hartzea.**

Zehazki, hur-hurreko arrisku larri eta saihestezina egonez gero, enpresaburuak arriskupean dauden langile guztiei eman behar die beraren berri, bai eta, bidezkoa bada, hartu behar diren babes-neurrien berri ere, eta langileek euren jarduera eteteko eta, behar izanez gero, lantokitik berehala alde egiteko agindua ere eman beharko du.
7. **Langileei segurtasunaren eta osasunaren arloan eurengan eragina duten alderdiei buruzko kontsulta egitea eta parte har dezaten ahalbidetzea.**
8. **Larrialdi-egoerak aztertzea eta lehen laguntzak emateko eta langile guztiak lantegitik aterarazteko neurriak hartzea.**
9. **Aurrekoa bermatzeko zerbitzuak hitzartzea.**
10. **Langileen osasun-egoeraren aldizkako zaintza bermatzea.**
11. **Titularraren lantegian diharduten enpresaburuek lantegiko arriskuei buruzko informazioa eta jarraibideak jaso ditzaten ziurtatzeko neurriak hartzea.**
12. **Kontratistek eta azpikontratistek lan-arriskuen prebentzioari buruzko arauak bete egiten dituztela jagotea.**
13. **Enpresako langile batzuk prebentzioaz ardura daitezen izendatzea eta prebentzio-zerbitzua eratzea edo kontratatzea.**
14. **Prebentzio-zerbitzurako izendatutako pertsoneri beharrezko informazio guztia ematea.**
17. **Enpresaren tamainak hala eskatuz gero, lantegian prebentzio-zerbitzu bat edo batzuk antolatzea edo kanpoko zerbitzuak kontratatzea.**

LANGILEEN BETEBEHARRAK

1. Langileei honako betebeharrak hauek dagozkie, euren prestakuntzaren arabera eta enpresaburuaren aginduei jarraituz:
 - **Lanean euren segurtasuna eta osasuna eta euren lan-jardueraren eraginpean dauden beste pertsonenak jagotea.**
 - **Bere lana garatzeko baliatzen dituen makinak, lanabesak, substantzia arriskutsuak eta gainerako bitarteko guztiak modu egokian erabiltzea.**
 - **Enpresaburuak emandako babes-ekipamendua eta bitartekoak behar bezala erabiltzea.**
2. **Lantegian dauden edo ezarriko diren segurtasun-bitartekoak modu egokian erabiltzea eta zerbitzuz kanpo ez jartzea.**
3. **Bere iritziz lantegiko segurtasun eta osasunerako arriskutsua izan daitekeen edozein egoera hierarkian bere gainean dagoen nagusiari eta babes- eta prebentzio-ekintzak gauzatzeko izendatutako langileei berehala jakinaraztea.**
4. **Agintari eskudunek xedatutako betebeharrak betetzen laguntzea.**
5. **Enpresak lan-baldintza seguruak eta arriskurik gabekoak berma ditzan laguntzea.**

OHARRA: Eginbehar horiek ez betetzea "Lana ez betetzea" bezalakotzat hartuko da, LEaren 58.1 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

PARTE HARTZEKO ETA ORDEZKARITZA IZATEKO ESKUBIDEAK

Enpresan, laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten gaietan parte hartzeko eskubidea dute langileek.

Sei langile edo gehiago dituzten enpresetan edo lantegietan, langileen parte-hartzea ordezkarien eta ordezkaritza espezializatuaren bitartez bideratuko da.

PREBENTZIOKO ORDEZKARIAK

ZER DIRA?

Langileak ordezkatzan dituzten eta laneko arriskuen prebentzioaren esparruan zeregin espezifikoa dituzten pertsonak dira.

NOLA AUKERATZEN DIRA?

Gehienez hogeita hamar langile dituzten enpresetan, Prebentzioko Ordezkaria Langileen Ordezkaria izango da.

Gainerako enpresetan, Prebentzioko Ordezkariak langileen ordezkariak eurek aukeratuko dituzte euren artetik (hitzarmenean beste sistemaren bat ezarri ezean), honako eskala honi jarraituz:

Plantilla	Ordezkari kp.
31 eta 49 bitarte	1
50 eta 100 bitarte	2
101 eta 500 bitarte	3
501 eta 1.000 bitarte	4
1.001 eta 2.000 bitarte	5
2.001 eta 3.000 bitarte	6
3.001 eta 4.000 bitarte	7
4.001etik aurrera bitarte	8

Era berean, negoziazio kolektiboan, edo LEaren 83.3 artikuluan aipatutako akordio bidez, lege horrek Prebentzioko Ordezkariari aintzatesten dizkien eskumenak hitzarmenean bertan edo aipatutako akordioetan sortutako organo espezifikoek erabiltzea hitzartu ahal izango da.

PREBENTZIOKO ORDEZKARIEN ESKUMENAK ETA AHALMENAK

Enpresaburuak, neurriak hartu aurretik, ENPRESAKO LAN ARRISKUEN PREBENTZIO PLANA EZARTZEKO ETA GAUZATZEKO MODUARI, ARRISKUEN EBALUAZIOARI ETA PREBENTZIOAREN PLANGINTZA ETA ANTOLAKUNTZARI buruzko kontsulta egin behar die Prebentzioko Ordezkariei.

- **Enpresako zuzendaritzari prebentzio-ekintza hobetzeko** proposamenak egitea **eta berarekin lankidetzan aritzea.**
- **Langileek prebentzioari buruzko arauak bete ditzaten sustatzea eta beraien lankidetzan bultzatzea.**
- **Prebentzioari buruzko arauak bete daitezten jagotea eta kontrolatzea.**
- **Prebentzioaren arloko ebaluazioetan, enpresako edo kontratatutako teknikariekin batera aritzea.**
- **Lantegietako segurtasunaren eta osasunaren inguruan egiten diren ikustaldi eta egiaztapenetan ikuskatzaileekin batera aritzea, emaitzen gaineko informazioa jasotzea eta euren iritzia ematea.**
- **Lan baldintzei buruzko dokumentu edo txostenetarako irispidea izatea eta konfidentzialtasuna errespetatzea.**
 - Langileen segurtasunerako eta osasunerako arriskuen ebaluazioa.
 - Laneko arriskuen prebentzio-plana, Laneko segurtasunerako eta osasunerako arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-ekintzen plangintza.
 - Langileen osasun-egoeraren kontrolak.
 - Langileei lanegun bat baino gehiagoko lan-ezintasuna eragin dieten lan-istripu eta gaixotasun profesionalen zerrenda.
 - Prebentzioari buruzko prestakuntza taxutzea eta antolatzea.
 - Langileen segurtasunean eta osasunean eragin aipagarria izan dezakeen beste edozein ekintza.
- Larrialdietarako planak, suteen kontrako sistemak eta larrialdietako ebakua-zio-sistemak ezagutzea.
- ABLEen bitartez kontratatutako langileen adskripzioaren berri izatea (langileen ordezkariak diren aldetik).

- Enpresaburuak langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartzen ez badu edo neurriak hartzerik ahalbidetzen ez badu, hur-hurreko arrisku larria egonez gero, langileen ordezkaritza-organoari jarduna bertan behera uzteko erabakia har dezan proposatzea (enpresari eta lan-agintaritzari berehala jakinarazi behar zaie).

SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDEA

ZER DA?

- **Enpresak arriskuei aurrea hartzeari begira garatzen dituen ekintzen gainean aldizkakotasunez kontsulta egiteko xedea duen eta erabakiak gehiengoaren aldekatasunez hartzen dituen bitariko organoa da (langileek eta enpresak ordezkari kopuru bera dute).**
- Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileretan, Batzordeko kide ez diren Ordezkari Sindikalek eta prebentzioko teknikariek ere har dezakete parte, hitzarekin baina botorik gabe.
- **50 langiletik gora duten enpresetan osatuko da Batzordea.**
- **Gutxienez, hiru hilerik behin edo alderdietako batek egitea eskatzen duenean egingo ditu bilera.**
- **Batzorde bakoitzak erabakiko du bere funtzionamendua.**

ESKUMENAK

- **Enpresaren prebentzio-planak eta -programak prestatzen, praktikan jartzen eta ebaluatzen parte hartzea.** Prebentzio-planek eta -programek enpresaren kudeaketa-sistema orokorreko jarduera guztietan eta enpresaren hierarkiako maila guztietan txertatuta egon behar dute.
- **Lan-metodo berrietako prebentzioari, lan-ekipamenduen aldaketari eta lanaren antolakuntzaren diseinuari buruz eztabaidatzea.**
- **Baldintzen hobekuntza eta akatsen zuzenketa sustatzea.**

AHALMENAK

- **Prebentzioaren egoera zuzenean ezagutzea, ikustaldiak eginez.**
- **Langileen osasunak jasan dituen kalteen gaineko informazioa enpresaburuarengandik jasotzea.**
- **Langileren batek kalte hartu duen lekura joatea, inguruabarren berri jakitera.**

- Lantegietarako ikustaldiak egitea, lan-baldintzak jagoteko eta kontrolatzeko.
- Enpresaburuari prebentzio-neurriak har ditzan eskatzea.
- Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko hobekuntzak proposatzea.
- Langileen ordezkaritza-organoari hur-hurreko arrisku larriren bat azaltzen bada jarduera eteteko erabakia har dezan proposatzea.
- Lan-baldintzei buruzko dokumentuak eta txostenak ezagutzea.
- Langileen osasunak jasan dituen kalteen berri izatea eta aztertzea, arrazoiak baloratzea eta irtenbideak proposatzea.
- Enpresaburuei eta langileei prebentzio arloko aholkuak emango dizkieten Prebentzioko Zerbitzuen urteko programazioa ezagutzea.

"Arriskuen ebaluazioaren barruan, haurdun dauden edo erditu berri diren emakume langileek euren osasunari edo fetuarenari kalte egin diezaioketen agenteen, prozeduren edo lan-baldintzen eraginpean ematen duten denbora eta eragin kaltegarri horren mota eta maila ere zehaztu behar dira, berariazko arriskua ekar dezakeen edozein jardueratan.

Ebaluazioaren emaitzek langile horien segurtasunerako edo osasunerako arriskua dagoela edo beraien haurdunaldian nahiz edoskitzaroan eragina izan dezakeela erakutsiz gero, enpresaburuak beharrezko neurriak hartuko ditu dagokion langilea arriskuaren eraginpean egon ez dadin, langile horren lan-baldintzak edo lanaldia moldatuz.

Behar izanez gero, gaueko lanalditik edo txandakako lanetik salbuetsiko du langilea.

Lan-baldintzak edo lanaldia moldatzea ezinezkoa bada, edo, moldatu arren, lanpostuko baldintzak haurdun dagoen langilearen edo fetuaren osasunari kaltegarri suertatu ahal bazaizkio eta Zerbitzu Medikoek, langileaz arduratzen den sendagilearen txostenaren aurrean, hala ziurtatzen badute, langileak bere egoerarekin bat datorren beste eginkizun edo lanpostu batean jardungo du. Enpresaburuak zehaztu beharko du, langileen ordezkariak kontsulta egin eta gero, horrelako kasuetarako arriskurik ez duten lanpostuen zerrenda.

Lanpostuaren edo eginkizunaren aldaketa egiteko, mugikortasun funtzionaleko kasuetan aplikatzen diren arau eta irizpideei jarraituko zaie. Aldaketak langilearen osasun-egoerak lehenagoko lanpostura itzultzea ahalbidetzen dion unera arte iraungo du.

Aurreko paragrafoan aipatutako arauak aplikatu arren, langilearen egoerarekiko bateragarria den lanposturik edo zereginik ez badago, langilea bere taldekoa edo kategoria baliokide batekoa ez den beste lanpostu batera bidali ahal izango da, baina jatorriko lanpostuari dagozkion ordainsari guztiak jasotzeko eskubidea gordeko du.

1. Teknikoki edo objektiboki lanpostu-aldaketa ezinezkoa bada edo behar bezala arrazoitutako zioengatik ezin exijitu badaiteke, langilea kontratuaren etete-egorera igarotzea erabaki ahal izango da, **Langileen Estatutuaren 45.1.d) artikuluan** haurdunaldiko arriskuari buruz aurreikusitako moduan, beraren segurtasuna edo osasuna babesteko behar den denboraz eta lehenagoko lanpostura itzuli edo bere egoerarekin bat datorren beste lanpostu batean jardun ezin duen bitartean.
2. Artikulu honen 1. eta 2. ataletan xedatutakoa edoskitzaroari ere aplikatuko zaio, lan-baldintzek emakumearen edo seme/alabaren osasunean eragin kaltegarria izan badezakete eta, dagokion Gizarte Segurantzza sisteman, langileaz arduratzten den sendagileak hala ziurtatzen baldin badu.
3. Haurdun dauden langileek haurtxoa jaio aurreko azterketak egiteko eta erditzea prestatzeko ikastaroetara joateko huts egin ahal izango dute lanera, enpresaburuari aurretiaz esanda eta ikastaroa edo azterketa lanaldiaren barruan egin beharra frogatuta, betiere".

LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREKIN LOTURIKO DEFINIZIOAK

Prebentzioa: enpresaren jardueraren etapa guztietan, lanaren ondoriozko arriskuak saihesteko edo murrizteko hartutako edo aurreikusitako ekintzen edo neurrien multzoa.

Lan-arriskua: langileak lanaren ondoriozko kaltea jasateko aukera. Arriskua larritasunaren arabera kalifikatzeko, kaltea gertatzeko probabilitatea eta kaltearen larritasuna hartzen dira aintzat.

Lanaren ondoriozko kalteak: lanean jazotako edo lanak eragindako gaixotasunak, patologia zein lesioak.

Hur-hurreko arrisku larria: etorkizun hurbilean gertatzeko arrazoizko aukera duen eta langileen osasunari kalte larria ekar diezaiokkeen arriskua.

Osasun-kalte larriak eragin ditzaketen agenteen eraginpean egonez gero, etorkizun hurbilean agente horien eragina jasateko arrazoizko aukera egotea hartuko da hur-hurreko arrisku larritzat, nahiz eta kalteak berehala agertu ez. .

Arriskutsu izan daitezkeen jarduerak: berariazko prebentzio-neurririk egon ezean, bertan diharduten langileen segurtasunerako eta osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen prozesuak, eragiketak, ekipamenduak edo produktuak.

Lan-ekipamendua: lanean erabiltzen den edozein makina, aparatu, tresna edo instalazio.

Lan-baldintzak: lanari datxekion eta langilearen segurtasunerako eta osasunerako arriskuen sorreran eragin nabaria izan dezakeen edozein ezaugarri, eta bereziki:

- Tokien, instalazioen, ekipamenduen, produktuen eta lantegian dauden gainerrako tresnen ezaugarri orokorrak.
- Laneko ingurunean dauden agente fisiko, kimiko eta biologikoen ezaugarriak.
- Goian aipatutako agenteak erabiltzeko prozedurak.

- *Langileak jasaten dituen arriskuen tamainan eragina duten eta lanari datzekion gainerako alderdi guztiak, lanaren antolakuntzarekin zerikusia dutenak barne hartuta.*

Banako babes-ekipamendua: *lanean, langilearen segurtasuna edo osasuna mehatxatu dezaketen arriskuetatik babesteko, aldean eraman behar den edo oratu behar zaion edozein ekipamendu eta xede horretarako erabiltzen den edozein osagarri.*

